


## Euskadiko gazteen kopuruak % 25 behera egin du azken 10 urteotan

### Euskadin 2016ko urtarrilaren 1ean 15 eta 29 urte bitarteko 283.517 lagun zeuden

Euskadiko egitura demografikoari buruzko datuak eskainiko ditu jarraian Gazteen Euskal Behatokiak. Datuok EUSTATEk Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistikaren bidez jasotakoak dira. Datuak adierazten dutenez, 2016ko urtarrilaren 1ean 283.517 lagun zeuden Euskadin 15 eta 29 urte bitartekoak. Horien artean 144.480 mutilak ziren; beste 139.037, neskak.

2006 urtean 15 eta 29 urte bitarteko 377.395 lagun zeuden Euskadin. Orduetik, kopuru horrek % 25 behera egin du.

**Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren bilakaera, sexuaren arabera**




*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EUSTATEn datuak oinarri hartuta ( Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika)*

Lurralde historikoen arteko ezberdintasunei jotzen badiegu, begi bistakoa da Bizkaia dela jaitsiera portzentual bortitzena izan duen lurraldea. 2006an Bizkaian 15 eta 29 urte bitarteko 201.119 gazte bazeuden, 2016 urtean 145.601 dira (% 27,6ko jaitsiera). Araban, urte tarte berdinean, 57.001tik 42.433 gazte izatera pasa dira (% 25,6ko jaitsiera). Gipuzkoa da gazte kopuruaren murrizketa xumeena izan duen lurraldea baina horrela ere jaitsiera handia izan da, 2006ko 119.275tik 2016ko 95.483ra (% 19,9ko murrizketa).

15-29 urte bitarteko biztanleria	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Euskadi, guztira	377.395	363.829	353.170	342.031	328.927	317.687	309.078	299.690	290.715	286.378	283.517
Araba	57.001	55.222	53.975	52.615	50.928	49.090	47.846	45.677	43.934	43.158	42.433
Bizkaia	201.119	194.429	188.025	181.582	174.116	167.564	162.281	156.557	150.787	147.686	145.601
Gipuzkoa	119.275	114.178	111.170	107.834	103.883	101.033	98.951	97.456	95.994	95.534	95.483

Gizarte batean 15 eta 29 urte bitartekoek hartzen duten portzentajezko proportzioa adierazten du gazteria indizeak. Euskadin indize horrek behera egiten dirau. 2006an % 17,8 bazen, 2016ko urtarrilaren 1ean % 13,1era heldu da.



Datuak lurralde historikoen arabera aztertuz gero zera ikus dezakegu: Bizkaia da gazteria indizearik baxuena duen lurraldea (% 12,8). Jarraian Araba dago (% 13,2) eta geroago Gipuzkoa (% 13,4). Indize honen beherantzako bilakaera berdina izan da hiru lurralde historikoetan.

Gazteria indizea	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Euskadi, guztira	17,8	17,1	16,4	15,8	15,1	14,6	14,1	13,8	13,4	13,2	13,1
Araba	18,9	18,0	17,4	16,8	16,0	15,4	14,8	14,3	13,7	13,4	13,2
Bizkaia	17,8	17,1	16,4	15,7	15,1	14,5	14,0	13,6	13,2	12,9	12,8
Gipuzkoa	17,4	16,6	16,0	15,4	14,8	14,4	14,0	13,8	13,5	13,5	13,4

Datuok eta beste hainbat Gazteen Euskal Behatokiaren Estatistiketan kontsulta daitezke, ***Biztanleria atalean***, hain zuzen ere.